



ÁLVARO  
ORTIZ

# IRATXO TXIKIA

ETA IBARREKO MUNSTROA

astiberri  
EUSKARAZ

BAZEN BEHIN ARRANTZALE BAT,  
GOIZERO, EGUZKIA IRTEN AURRETIK  
ARRANTZARA ABIATZEN ZENA.



ETA, ZORIONEZ, EGUN HARTAN SEMEAK  
LAGUNDU ZION...



BIEN ARTEAN ERE KOSTATU BAITZITAIEN  
HALAKO ARRAIN PUSKA  
ATERATZEA.



BEGIRA,  
AMA!!




ARRAINA GARBITZEN ETA  
ZATITZEN HASI ZIRENEAN,  
EZUSTEKO GALANTA  
HARTU ZUTEN.


ZERBAIT  
IRENTSI DU!

DIRDIRA  
EGITEN DU!




ENE  
JAINKOA!!!








ETA BAZEN BEHIN, HANDIK  
OSO-OSO URRUN, HIRI  
IZUGARRI HANDI BAT.



ETA HIRIAREN GOI-GOIAN,  
SULTANAREN JAUREGIA.



ETA JAUREGI HARTAN BI LAGUN  
BIZI ZIREN.



HILABETE BATZUK LEHENAGO, ABENTURA  
HANDIAK BIZI IZAN ZITUZTEN AYUMI  
IRATXO TXIKIAK, SULTANAREN ALABA  
AMINAK ETA HAIEN LAGUN AHMEDEK...




ETA TOKI SINESTEZINAK IKUSI ZITUZTEN...



BAITA OSO PERTSONAIA  
BITXIAK EZAGUTU ERE.



BAINA ORAIN NAHIKO  
LASAI ZEGOEN  
DENA.





TIRA, AGIAN EZ HAINBESTE.

AURKITZEN EZ BADUT,  
AMAK HILKO NAU!!



ZERTAZ ARI  
ZARA?

ZER GERTATU  
DA?

AURREKOAN  
OPARITU ZIDATEN  
KATUTXOA...



BIHURRIA ZELA ESAN ZIDATEN,  
ETA ONDO ZAIINTZEKO!

BAINA ATEA  
ZABALIK UTZI DUDALA  
USTE DUT!

ETA KUTXA BARRUAN  
ARI ZARA BILA?



JA EZ DAKIT NON BEGIRATU!

OITXXX...



ZERBAIT EGIN  
DEZAKEZU??

NON ARRAIO  
DAGOEN JAKITEKO  
AZTIKERIAREN BAT??

BADA...



AYUMI IRATXOA DA, BAINA IRATXO  
HASIBERRIA. ORAINDIK EZ DA OSO  
TREBEA AZTIKERIAK EGITEN.




IZAN ERE, HUTSEGITEZ SULTANA HARRI  
BILAKATU ZUENEAN JAUREGITIK ALDE EGIN  
BEHAR IZAN ZUTEN KONPONBIDE BILA.



BEGIRA, MARRAZTU DIZUT.

JARRI ARRETA,  
EA BOTERE MAGIKOEK  
ARGITZEN DIZUTEN  
NON DAGOEN.











AYUMI  
ANDREA?

LEHENBAILEHEN HITZ  
EGIN BEHAR DUGU, OSO  
GARRANTZITSUA DA.